


TUNBIXAK TUNTUX
(Augustin Zubikarairen olerkiak)

Urriko haize lehorra firin-faran dabil igande arratsaldean Markinako Pradoan. Zirimolak batera eta bestera hostoak erabili bitartean, jatorri desberdinetatik etorri eta Karmeldarren egontokira batu gara zenbaitzuk. Han, Julen Urkiza ostalier, mahai gainean ari dira eskurik eskuko eta jiradantzan Augustin Zubikaraik behinola ondutako bertso sortak. Asmo dugu Arranondo elkarteak urtero-urtero Ondarroan antolatzen duen kultura astean zerbait egitea, oraintsu joan zaigun maisu ondarrutarraren inguruan.

Ametsak amets, ustezko gogo eta desirak eguneroko pisua-rekin erkatu eta orekatu behar eta hara hor, beste ekintzen artean, era-erara asmatu ditugunak: bi eguneko egitaraua, lehen egunean Julen Urkiza eta Luis Baraiazarra idazle trebeek, Javier Arrieta arranondokideak aurkeztuta, Zubikarairen halako biografia edo biobibliografia egin dezaten eta bigarreanean, ostiralean, hain zuzen, ondarrutarren entzumenaren gertu jarri Zubikarai zenaren olerkiak.

Bada horretarako abagune ezin egokia, esku-eskura baitugu, lehen esan legez, haren olerkigintza osoa. Hori profitatu behar eta aldi berean, ezezaguna zaigun Zubikarairen alderdi poetikoa ere begibistan jarri. Irakurraldia izan da gure hautua, norbaitek noizbait hobea moldatuko duelakoan.



Andres Urrutia, aurkezle.

Premiazko izan zaigu, ordea, lokailu sendoa, olerkien kate-
begia irmo lotu eta txirrist egin gabe, entzulea bera batetik
bestera eramango duena, ia-ia konturatzeke, irradan doanaren
antzera.

Hartara, ardatza jarri dugu Augustin Zubikarairen bizitza be-
ra, gorabeheratsua eta gertaera askoduna. Haren bertsoak eta
olerkiak doinuz eta soinuaz ekartzeko, zer hobe gizabanakoari
dagokion neke-lorren eta poz-alaiaren soka luzea baino?


Esan eta egin, sei arlotan banatu ditugu gure arrangurak eta
kezkak olerkariari buruzko jardunean. Lehen-lehena, *Ume-
denborak*; gerora, *Gerratekoak*; horren ondoren, *Gerrosteko
ilun isilak* eta aurrekoaren pizgarri, *Herriz herriko* poemak.
Itsasoa ere bor-bor, hur-hurrean, *Itsas bitsetan* sailean eta az-
kenez, bizitzaren azken aldian, *Euzkadi osotzen*, idazlearen
ametsak eta bihar-etzikoak egoki zertzeko.

Giza ahotsa, hala ere, biluzik eta apaindurarik gabekoa izan
eta sarri-askotan testuaren atarikoak eskatzen du. Aurkezte lan-
gintza horretarako berba eman dugu, mahaikideen artean,
Julen Urkizak eta biok, osterantzeko irakurle sutsuek sailez sail
entzuleak eramane bitartean.



Olerki-irakurleak, hasteko prest.

Ostiral arratsaldea, urriaren hogeita bederatzia. Berbakoak izan eta Ondarroako Kofradia zaharreko aretoan aurkezleak eta irakurleak, Augustin Zubikarairen olerkiak eskuan dituztela, hasteko prest.



Julen Urkiza, aurkezle.

Andres Urrutia aurkezleak lehen hitzak jaurti ditu:

“Oraintsu joan da gure artetik Augustin Zubikarai...” Testu laburra eta arina. Entzuleak adi-adi zer datorren atzeman nahian. Hasten dira alorrez alor, idazlearenak garatzen.

1. Ume-denborak

Julen Urkiza esatari:

“Lehenengo zati honetan Augustinen hiru olerki entzungo ditugu, bere ume denborako eta Ondarroako giroaz zerikusia daukaten hiru olerki: *Bateletan*; *Mamu kontuak* eta *Oñak garbitzen*. Hirurak argitaratuak, lehenengo biak, *Boga-Bogan* eta *Olertin*, eta hirugarrena *Olertin* bakarrik. Gerra osteko lehenengo aldiak idatziak eta argitaratuak, 1957an, 1963an eta 1966an.

Bateletan, Ondarroako itsas bizitzari sarrera antzekoa, himno antzekoa da: benetan kantatzekoa. Nik neuk ere bateletan sartuta ikusten dut neure umetako burua.

Mamu kontuak izenaz Ondarrutarren egun-egunekatik ironiaz hartutako irudi batzuk eskaintzen dizkigu Augustinek; Kortzeleko mamuak agertzen dira Ondarroako bizitza jakin guran. Ni neu behintzat kortzeleko mamuen artean bizi izan nintzen, han genuelako geure eskolatxoak; egunez ez genuen bildurrik, baina gauaz bai. Eta *Oñak garbitzen* olerkia entzutean, guretariko norik ez gogoratu bizi izan dugun itsasoaren laztana eta hondarraren gozoa?”

Eduarne Urresti emakumea, irakurle eta abeslari:

Bateletan

...Agur Ondarru,
agur gure erri txukun,
lurretik urrun
danok gara zure kutun...



Edurne Urresti, esanez eta kantuz.

...
Boga orain erramutan
itxasoan sakonetan,
arnastu daigun kresala
gure zaarrak bezala,
billatu gogoz arraiña,
txalopetan jaso aiña,
munduz mundu ta urez ur
zabal daigun beti samur
gure biotzen kantua:
Ondarru ta itxasua.

Mamu Kontuak

Korreta zarretikan
Korreta barrira
Mamuak kortzelian
Umiei begira...

Ai, ai, ai neskazarrak
Kai, kai, kaixarrak,
Ondarruko kontuak
Ba dakiz mamuak...

Oñak garbitzen

...Nire oñak laztantzen
Zetan abil Itxaso?
Nire zaurik kimatzen
Zetan ain leun ta oparo?


2. Gerratekoak

Andres Urrutia mintzo da:

“Gerra dator. Ondarrutar askoren antzera, poetak zurrumuru-
rua entzun du hasieran, gero leherketa beltza eta bortitza.
Herritik alde egin behar, ezinbestean eta halabeharrez.
Norabide barik, zuri-gorrien artean, badoa batetik bestera, atxi-
lo, loturik, gogoz kontrako behargin bortxatua.

Herria deseginda, familiatik urrun, adiskideak hilda...
Olerkariari etorri zaio, pelikula arin batez, askatasunetik pre-
sondegira doan bide malkartsua.”

Gorka Badiolak dihardu irakurtzen:



Gorka Badiola, ekinean.

Otazko Kurutzea

(1938´ko udabarrian,
eskola lagun on baten illobia billatu neban...)

... Zurien artean
gorri zebiltzan
guda morroitzan
gaztelar landetan.

...

Ez negon baketan
lurraren zokilletan
zu ere ikusten zindudazan
zerbaiten premiñetan.
Biok gorri izanik
kurutzearen itzala
uzten gendun zala
fedegarbiaren azala,
betiko loaren izara.

Lur eta lur
ta inun ez egur,
ota mintsuak batuz
ta alkartuz,
botillaren ondoan
kurutze baldar bat
ipiñi neutsun,
kutun-kutun,
zure loaren bakean...

Azken buruausteak

Espetxean dot gela:
lau horma ta ganbela
Arnas estu ustela.
Ezin gerta bestela.
Urtzen, -erria belar-
nire bizi kandela.
Luze dua gauela.
badakit ilgo nabela...

Gorri aiña zuri,
zuri bezin orlegi,
zor deukatsudaz Zuri
gizonaren lau egi.

Lau egi ta lau kanta.
 zu ta giza gorantza,
 alban ilko nabe ta
 Euzkadin ein il dantza...

Ezker kantak

...Gerra sortu zanean,
 garratz
 menderatu,
 ta sartu nitzan bertan...

Ogei urte neukazan,
 ogei,
 ta banekian
 gure aberria zen zan...

... Eta gerrak bereak ditu kartzelak...
 Giltzapian sartu naute
 poliki-poliki...
 Amak jakinda ere,
 ai nire amak baleki!

3. Gerrosteko ilun isilak

Julen Urkiza esatari:

“Hirugarren *ilun isilak* atal honetan gogora ekartzen digu Augustinek isilune horietan idatzitakoa, baina gerrak ekarri zion iluna gogoratuz. Horregatik lehenengo olerkian *Erri txiki bateko eleizan*, Augustinek Andaluzian sufridutako kartzela erakutsiko digu. Eta bigarren olerkian *Langabeko bateri begira* gerra osteko ilunean sufridutako langabeziaren irudia, oso irudi hunkigarria Augustinek begien aurren jartzen diguna.”

Miren Urresti jaseko andrazkoa ekinen:

Erri txiki bateko eleizan

"Las Inviernas"
Eldu gara penaz,
Emen biziteko
Gorrien baimenaz.



Miren Urresti, jarduketan.

Gorrien baimenaz
 Eta zurien kemenaz,
 Indarra indarrez
 Negurtzeko almenaz...

...Ez dau emen eleizak
 arrizko torrerik,
 ez eta aldarak
 urrezko pitxiril.

Ez dau emen apaizak
 Sedazko sillorik,
 Ez eta jantziak
 Zillarren dizdirik,

Eliza pobrean
 Makur dogu buru;
 Gurutz berbera
 Guk konpondu dogu.

Langabeko bateri begira

Gizon bat ikusi dot negarrez kalean
 eskale,
 Negarrez ebillan ta kezkaen miñean,
 lan gabe,
 Lagun eran lepoan ikutu dautsat
 ta gizonak eskartu,
 berba bako jardunez alkartu gara
 ta bitsuok kezkatu...

4. Herriz herri

Oraingoan, berriro ere, Andres Urrutia da aurkezle:

“Bizitza aurrerantza dator. Olerkiak, kezkek lagun, itxaropenarako zantzuak itxuratzen ditu. Herria maite du; herriak miresten ditu. Ibiltan dabil, Bizkaia eta Nafarroan batez ere. Sorterritik kanpo, badu bere kuttuna, bokal huts bikoa: Ea. Gero, kostarik kosta, kosterrez, Augustinek badarama irakurlea bere bertso-txalupan. Olerkiaren baforak, edozein modutan



Iker Badiola, gogotsu.

ere, itsasoz bestaldera, lehorrean zehar eramaten du Augustin bera, Nafarroako lurraldeetara. Han Mendigorri, hantxe be, haren esanetan, *dana gorri ta gori.*"

Iker Badiola gazte leberrak argi dirausku:

Ea! Ea!

Ba dot
Bizkai aldean
Erri txiki bat kutun:
Ea

Antxe sentidu neban
Biotza tuku-tukun:
Maitea

Bertan
nigandu neban
nire bizi eraztun:
emaztea.
Ea!
Maitea...!
Emaztea...!

...Espetxean
neban gelea
negu baltzean...
ta maitea
Ean.

Erbestean
neban etxea
ondorenean...
ta maitea
Ean.

Ta orra
nire
ames egitea
goiz-aldean
jaikitzean:
Erbestea...
gerratea...
etxea...
maitea...
Ea...!
...

Gernika íra kosterrez

Gipuzkoatik nator Bizkaira
Erriz erri,
Ikus miñez.
Mutriku,
-kristo leku-
oraingoz behintzat
itzi atzean...

...Agur, agur Ondarroa,
Antigua ta Likona,
Eleiz dorre ta torretxe,
Kale, kantoï ta kantale....

Mendigorria ín

Dana da gorri,
gorri ta gori
Naparroan.
Txapel
edo

kasket;
 Biotz eta odol;
 lur
 eta
 ur...

...Baiña
 Mendigorrin baiño
 Bake zuriagorik,
 Eztakit nun leiken,
 Izar eta laiño,
 Zeruen zurian ezik.

5. Itxas bitsetan

Julen Urkizaren ahotsak daragoio arloari:

“Bosgarren atal honek itsasora begira jartzen gaitu, itsasoak bitsetan dakarren ametsari, eta batez ere itsasoko biziari, arrantzaleen biziari, hau da, arrainari begira.

Lehenengo olerkia *Ur andietan, lurreko ametsetan*, benetan itsasoa ametsen iturri bihurtzen da askotan, eta hori ikusten dugu Augustinengan, bai maitearen ametsa.

Bigarren olerkia *Arrain egunak* luzea dugu: irudimen handiz azaltzen digu Augustinek arrantzara joateko dei-ohiturak; eta honen inguruan Augustinek ironia jarriko du goren. Eta gero arrantzako momentuko arazo bizkorak, etabar. Baina zein ederto amaitzen diren arrainaren arazo guztiak, umetxoaren alaitasunean eta amaren bakean, baina arrainaren usainean!”

Amaia Akarregi andrazkoak irakurtzen du, indartsu:



Amaia Akarregi, sendo.

Ur andietan, lurreko ametsetan

Itxas sakonean
 luze begira nabil;
 eztakit nora,
 urrunetara.
 Goietan urdin zerua,
 ez dakit nun leiken lurra;
 bare, geldi itsasoa,
 sargore lako beroa.
 Kaiuak eteten dabilz
 uranditako bakea...

Arrain egunak

Altza, altza Millan,
 Jaunan izenean,
 blankuraz arraiñak
 itxaso gañean.
 ...
 Zabaldu tostetan
 arrain bizia,
 ugaldu bitsetan
 ontzi guztia
 ...
 Ta koasta makur,
 gizonak popan,
 txistuka porturuntz
 ames gozotan
 ...
 Gertu fabriketan
 tunbixak tuntux,
 umiak maietan
 zakatzak kenduz.

...
Aurtxoak seaskan
uju zolitan,
seguru arrantzan
ames txikitan.

...
Ta gero, amagaz
jolas ezta,
arrain usainagaz
gozo titia

6. Euzkadi osotzen

Andres Urrutia ari da:

“Zabal dator oraingoan olerkaria. Bizitzaren joan-etorri luze-etan, hamaikatxo gertaera ikusi eta bizi izan ditu. Behinolako gazte hark zahartzaroaren pisua igarri du lepo gainean. Sendo da abertzaletasunean; itxaropentsu, eginkizunetan. Bizkaitarra da, baina badaki, bihar-etzikoari buruz, Europa dela Euzkadi baten etorkizuna.”

Irakurle, bertso bana, Julen Urkiza eta Andres Urrutia.

Euzkadi osotzen

...Eta Euzkadi bat
Baketan biziten alegingo
Bakea dalako
Erri nortasunaren gorringo

Ala mugak kendu
ta danok izango gara anai
giza eskubidez
batera inarduz bakez alai.

Olerkiaren doinua itzali egin da txaloen artean. Bertaratuak kalera atera bitartean, esku-eskura, *Karmel* eta *Arranondo* aldizkariak.

Bitzuotan, igarri-igarrian, Augustin Zubikarai zenaren irudia eta xehetasunak. Oraingoan, argi dago, haren lana gomutagarri jarri du *Arranondo* elkarteak. Merezi zuen, horratio, *Karmel* aldizkarian aipatzea. Hala egin dizut, irakurle, kronista lan xumea hartuta eta gogoko izango zaizulakoan.

Ea gozagarri duzun!

Augustin Zubikarai zenak esango lukeenez, *tunbixak*, poesia bada ere, *tuntux* behar ditugu eta.

Andres Urrutia